

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5055

EBAZPENA, 2018ko irailaren 28koa Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi laguntzak ematen baitzaizkie, 2018-2019 ikasturtean eskola esparruan eta Hezkuntza Sailarekin lankidetzan egin nahi baitituzte ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak (12. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunaren arreta).

Kontuan harturik zer dioten Hezkuntzako sailburuaren 2018ko maiatzaren 30eko Aginduak (agindu haren bidez, irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunderi dei egiten zaie, hain zuzen ere, eskola esparruan ikasle ijitoentzako hezkuntza-jarduerak garatzeko 2018-2019 ikasturtean Hezkuntza Sailarekin lankidetzan jardun nahi dutenei), aurkeztu diren eskabideak eta ebaluazio-batzordearen proposamena aztertu ondoren, eta deialdia egiten duen Aginduaren 12. artikulua aplikatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Elkarteei laguntza hauek ematea, kasuan-kasuan zehazten den zenbatekoarekin.

Elkartea	Lurraldea	Diru-laguntza
Kale dor Kayiko	Gipuzkoa	101.990,00 euro

Bigarrena.— Elkarre hauek egindako eskabideei ezezkoa ematea, zehazten diren arrazoiengatik:

Elkartea	Lurraldea	Arrazoiak
XERA	Gipuzkoa	Erakunde eskatzaile izateko baldintzak ez ditu betetzen (4.1 artikulua)

Hirugarrena.— Laguntzak bi zatitan ordainduko dira:

a) Aurre-ordainketa bat egingo da, diru-laguntzaren % 20koa, emandako laguntza onartu eta berehala.

b) Gainerakoa, diru-laguntza osoaren % 80a, bitarteko txostena aurkeztu ondoren ordainduko da. Txostenean, proiektuaren ordura arteko garapena zein izan den jasoko da eta ikastetxeetan garatzen ari diren lan-plangintza aipatuko da. Txosten hori 2019ko urtarrilaren 7tik 31ra bitartean aurkeztuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen honen kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 28a.

Hezkuntza Berriztatze zuzendaria,
LUCÍA TORREALDAY BERRUECO.